

Txillardegia

Idazlea eta gizartea

Aztergai garrantzitsua idazten dugun guztiontzat. Eta idazleei eta liburuei buruz argitaratzen edo entzunarazten diren mahai-inguru eta plaza-aurreko elkarrizketetan, etengabe agertzen –eta agertuko– den eztabaida.

Artikulu honen titulua hautatzerakoan, zalantza izpi bat izan dut. Gain horretan ez ote nukeen "Literatura eta gizartea" idazpuru hobetsi behar. Ala, alderantziz, murriztago, "Nobelagilea eta gizartea". Euskal Herrian ere, beste leku guztietan bezala, nobelagintzari baitagokio, nik uste, ipuingintzarekin batera, idazleak gizartean eragiteko duen luma-tresna nagusia.

Eta nahiz poesiak, teatroak, saiakerak, eta abarrek, berena zalantzarik gabe izan dezaketen arren.

Hots, niri, filosofoa ez naizen honi, gauza nabarmena zait idazlea eta pertsona bereiztea; alegia, liburuaren egilea eta gizartean bizi den gizakia elkarrengandik desberdintzea, oso dela zaila. Ezinezkoa funtsean; are logikaren kontrakoa ere.

"Nobela egitura –esan ohi zuten Jean Paul Sartrek– autorearen metafisikara garamatza beti". Obrak, bestela esanda, idazlearen barne-muina salatzen du.

Arte obrak oro –eta luma-bidezkoak ere bai– bere autonomia du. Idazlearen eta bere izkribuen artean ez dago inolako homologia hertsirik. Noski.

Baina beste muturreraino joaterik ez dago. Edozein idazleri edozein izkribu dagokiokeela pentsatzea ez da bidezkoa.

1936ko euskal gudarien alde bere ahotsa ozenki altxa zuten Nobel Sari hark behin idatzi zuenez: "Bere buruarentzat bakarrik idazten omen duen idazlea, gezurrez mintzo da".

Solipsismo hori ez baita egiaz gertatzen. Amiel-en kasua –17.000 orrialdetako egunkari ezkutua– patologiarren lekukotzen arloan aztertuko litzateke gaur.


Hau dela-eta, idazleak, bere irakurleagoaren bitartez, konpromisoa hartzen du bere gizartearekiko. Areago maila gorena iristen duenean; orduan gizadi garaikidearekin eta gainerakoekin ere hartzen baitu. Barojaren eta Kafkaren eraginak, esate baterako, ez dira oraino ahitu.

Ezinbestean, beraz, gizarte erantzukizuna du idazleak.

Eta, etxera etorri, bere erantzukizuna du euskal idazleak. Euskal idazlea ez baita estratosferan bizi.

Artista izatea ala ez, artista dohainei dagokie. Eta ez hautu ideologikoei. Askotan izan da –eta "errealismo sozialista" ren porrota dugu adibiderik ezagunena– idazlearen borondate onak eta helburu txalogarriak ez dutela segurtatzen arte obraren lorpena.

Eta hau ongi dakigu idazten dugunok. Kritikak



RUBEN PLAZA

mingarri zaizkigun arren, norberaren mugak eta errakuntzak ezagutzea guztiz beharrezkoa dugu, amets zorotan barrena abiatuko ez bagara.

Baina, beste maila batean, euskal idazle apolitikoak astintzeko garaia da. Eta zapalke-ta eta ukazio betean bizi garen herri honetan, areago.

James Joyce Dublindar idazle handia, bere herriarekiko jarreraren alde honetatik, nekez izan dakiguke eredu. Eta horrela

aldarrikatu behar dugu.

Gizarte konpromisoaren baldintza ez da aski, noski, idazle baten arte maila bermatzeko. Baina beharrezko baldintza bai bere herrikideekiko.

Une honetan premiazkoa iruditzen zait hau gogoraztea.

Martin Ugalde miresgarria izan da –orain konturatu omen da Del Olmo jueza Martinen kontuak blokatzeko arrazoirik ez zegoela!–. Euskal Herriarekiko maitasunak eraginda utzi zuten Martinek Venezuelako erdal etorkizun leuna. Eta, militantziaz, euskaraz idazteari ekin zion. Ez zen lotsatu bere barnea biluzten; eta bere herriaren zerbitzari umil jokatu zuen hil arte.

Zer literatur maila lortu duen Martinek? Besteek erantzun bezate. Ipuingintzaren alorrean bikaina, ahobatez diotenez. Nobelagintzaren eta kazetaritzarenean ere, ona.

Ez zitzaian lotsagarri iruditu abertzale agertzea, Martin; ezta heure herria eta heure herriko borrokalaria defenditzea ere. Ohore hiri, bihotzez!

Hots, egun bertsuetan zabaldu da gurean Mikel Albisuren atxiloketaren berria.

Mikel ere, beste belaun bateko lagun, beste pentsaera batean oratua; eta bion literatur ekarpenak inondik inora alderatu nahi ez ditudalarik, euskal idazle gisa agertu zen plazara.

Kazetari gisa aurrenik ARGIAN zazpi urtez, eta euskal teatroaren inguruko izkribuetan –Imanol Muruak xeheki azaldu duenez–. Mikel ere ez zen bere hizkuntzaz eta bere herriaz lotsatu; eta bere gain hartuko zituen arriskuei ez ikusia eginez, konpromisoaren bidetik jo zuen.

Ez dakigu Mikelek luma berriro inoiz hartuko ote duen; eta arra-hartzen badu, zein literatur maila lortuko duen. Geroak erranen. Baina Martinen baldintza bete da. Joseba Sarrionaindia bere adiskideak bete duen bezala.

Beste euskal idazle askok ere bai. Jakina.

Denek ez, ordea.

Gai izkintsua, badakit. Liskar iturri beharbada.

Baina geure ideiak argiro azaltzeko ez bada, zertarako luma hartuko? ■